



Konposta egingo dute auzolanean Zabaleta auzoan

Zabaleta auzoan konposta egiteko hamar kutxa jarri dituzte auzotarrek erabil ditzaten. Jada familia batzuek ari dira etxeko hondakin organikoak kutxa hauean botatzeko, baina nahi duen orok erabili ditzake gehiago jartzeko asmoa baitute auzotarrek. Etxean toki egokirik ez dutenezat zabaldu dute auto-konpostatze gune hau. Beste batzuek euren ortu edo lorategian egingo dute. /5. orrialdea



Hitzarmen egokiaren aldeko lanuzteak

Michelineko langileek astezkenero egingo dituzte

Astezkenean, LAB, CCOO, ELA eta UGT sindikatuek deituta atean elkartu ziren Michelin multinazional frantseseko langileak. "Hitzarmen justu eta irrazoizko baten alde" leloa zuen pankartaren atzean hainbat izan ziren ordu beteko lanuztea egin zuten langileak. Sindikatuek erantzun ona izan zuela uste dute. Asteazkenero egingo dituzte lanuzteak. /8. orrialdean

Haurtxoen loa aztergai

Haurtxoen eta gurasoen loa aztertzeko orduan sor daitezkeen arazoetaz mintzo zen asteazkenean Pilar Seminario, Lasarte-Oriako Osasun sailak antolatzen dituen haur eta nerabeen hezkuntzari buruzko hitzaldi zikloan. Manuel Lekuonako hitzaldi aretora hurbildu ziren gurasoek haurtxoen loa zikloari buruz eta garapenaren etapa desberdinei buruz jakin zuten. Honetaz gain, gau erdian esnatzearen arazoak eta amets gaiztoak ere aipatu ziren. Eta haien esperientziak partekatzekeo tartea ere egon zen. •



Pilar Seminariok, besteak beste, haurtxoen loa eta honen garapena azaldu zien hitzaldi aretora hurbildu zirenei.

ALBISTEA /3

Udal zerga gehienek 1,7ko igoera izango dute aurten

ALBISTEA /4

Uholdean kaltea izan zutenek udal bulegoan jakinarazi behar dute

KIROLA /6

Behobia Donostian parte hartu zuten 200 herritarren postua eta denbora



debelaiz talleres

Debelaiz
Herritarrentzako konfiantzazko tailerra
zerbitzurik onenarekin

AUTOENTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

Mekanika, Txapa, Pintura



BOSCH Service

Oria etorbidea 4, 3. lokala • Lasarte-Oria • Tel.: 943 366671 • www.debelaiz.com

Neure kabuz



Hauteskundeak

Independentzia aldarrikatzen diogun estatu baten hauteskunderetan parte hartzea kontraesan bat bada ere, gurean eragiten duelako aurkezten gara gureak ez diren bozketara. Aro berri baten atarian gaudela begi bistakoa da, eta aukera ezin hobe da Madrilera eramateko gure ahotsa.

Ilegalizazio garaia iraganeko kontuak izan behar dute, eta ez dezagun ahaztu, oraindik orain, Sortu legez kanpo dagoela. Estatu demokratiko batean bizi garen seinale. Aukera bikaina dugu, talka armatuaren gaizditzeak gatazka ez duela konponduko agerian uzteko, iraganeko sufrimenduak aitortu eta enpatizatzeke, kolorez zipriztindutako herri euskaldun bat eraikitzen jarraitzeko, herriari hitza emateko... Azken urteetako bidean karga astuna daramagu bizkar gainean, malko putzutan igeri iritsi gara koiuntura berrietara. Eragindako zein jasandako mina erreparatzea ezinezkoa da, baina erakozimendua ezinbestekoa, eta arazoaren muinera jo beharko dugu benetako normalizazio politikoa eta soziala lortuko badugu.

Bestalde, egoera ekonomiko larria ari gara bizitzen, eta gogorrena heltzeko dagoela esaten duenik ere bada. Berrito ere, handimandien hanka sartzeak langileok ordaindu beharko ditugu, eta hainbeste odol tanta isuri dituen borrokaren ondorioz lortutakoak kolokan daude. Herri xeheak bazterrek nahasi behar ditu eta agintari politikoa zein jauntxoek aurre egin. Beti bezala etorkizuna gure esku dago, soilik gure esku.

Nire lagun on batzuen alabak Amairu izena du. Begirada zintzoduna, jolas-tia, ameslaria, bizia, koloretua, alaia, sortzailea... da.

Unai Muñoa

Zorion-agurrak



Gorka

Zorionak Gorka Montañer! Larunbateko prepatu, indartsu goaz eta!



Virginia

Zorionak eta egun polita izan!!!! 36 muxu goxo familiaren partetik!!



Leire

Zorionak! 7 muxu potolo, Iraia, amatxo eta aitaxoren partetik.



Irune

Txokolatzeko zortzi muxu Ander eta gurasoen partetik.



Aimar

Zorionak zure bigarren urtebetetzean. Txokomarrubizko muxu goxoak familiaren partetik.



Enara

Zorionak, primeran pasa ezazu zure 6 urtebetetzeak egunean. June, aita eta amaren partetik.



Aimar

Zorionak Aimar bost muxu handi familiaren partetik.



Marijo, Maria Pilar eta Juana Mari

Zorionak hiru amatxoei, hau da hirukote osatu duzuen alajaina. Zorionak Oier, Arkaitz eta Itxaso.



Aitor

Azaroaren 6an ziren arren, zorionak eta hamalaka muxu familia osoa eta Eiderren partetik.



Alaia

Zorionak familia eta lagun partetik! 3 muxu handi!



Saioa

Zorionak potxoki. Ondo pasa aiton-amona, osaba-izeba eta lehengusuen partetik.



Sara

Zorionak! Zapzi muxu handi familiaren partetik.



Manex

Zorionak maitia! txokolatzeko hiru muxu handi izeba Naro eta osaba Ibairen partez.



Saioa

Zorionak Saioa! Lau muxu handi Johana eta familiaren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- 70 metroko etxebizitza eguzkitua alokatzen da Usturibilen. Josune 649 424 826.
- Pisu alokatzen da Kale Nagusian. 616 494 429.
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. 648 614 769.

Lan-eskaria

- Geriatrian laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua edo gaixoak zaintzeko edo garbiketa egiteko

prest dago. Orduka, gauetan edo asteburuetan. Profesionaltasuna eta tratua ona eskaintzen du. Carlos (680-983527).

- Neska euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Arduratsua eta esperientziaduna. 658741781 - Pili.
- Emakume eskaintzen da etxeko lanak edo pertsona zaharrak zaintzeko. Txostenekin. Harremanetarako, 648 526 080.
- Erizaintza eta geriatrian trebatutako gazte arduratsua zaharrrak zaintzen lana egingo luke. 679 526 305.

Oharra jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Heriotzak

- Pedro Maria Iraeta Goenaga, azaroaren 16ean, 76 urte zituela
- Marian Lopez Florez, azaroaren 16ean, 42 urte zituela
- Dimas Vegas Calvo, azaroaren 14an, 92 urte zituela
- Maria Jesus Etxeberria Olano, azaroaren 13a, 57 urte zituela
- Andres Barrantes Duro, azaroaren 10ean, 85 urte zituela
- Angel Blanco Grijalba, azaroaren 10ean, 75 urte zituela

Jaiotzak

- Arnau Ruiz Martorí, azaroaren 8an
- Ibai Perez Calleja, azaroaren 8an

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua ... 943 376184
Kiroldegia ... 943 376182
Kulturetxea ... 943 376181
Gizarte Zerbitzua ... 943 376179
KIUB ... 943 361605
Udal euskaltegia ... 943 361621
Muntteri AEK ... 943 372863

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 18

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 19

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Igandea, 20

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astelehena, 21

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteartea, 22

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteazkena, 23

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Osteguna, 24

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucua, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

%1,7ko igoera izango dute zergak

Merkataritza, nekazaritza eta industria laguntzeko ordenantzak onartu ziren

Lehenengo ostiralean, azaroaren 8an, Udalbatzarrak 2012 urteko ordenantzak, hau da, herritarrek, enpresek eta komertzioek ordaindu beharko dituzten zerga, tasa eta tarifak onartu zituzten.

Batzarrean Estitxu Alkorta Ogasun batzordeko arduradunak azaldu zuenez, "prezio publikoak lasarteoriatarren eskura mantentzeko hurrengo urteko KPI baino gutxiago igo ditugu, %1,7a".

Ordenantzen proiektua errekursoak eta 2012 urteko konpromiso ekonomikoak aztertu ostean egindako txosten baten ondorio direla jakin arazi zuen. "Aurreikuspen horiek herztura eta zuhurtzia ez eginak dira eta 2012. urtea aurrezki netoarekin amaitzeko helburuarekin".

Izan ere, Nerea Sanchez alkate ordeak azaldu zuenez, "eraikin berriak egin dira urte hauetan, Udaltexa berria esate baterako. Horiek mantentzeko eta zerbitzu berriak sortzeko dirua behar da".

Komertzioa lagundu

Zehazki azalduta, IBlari dago-kionez, aldaketa txikia egongo da, katastroka baino gehiago izango da eta erabiliko diren tipoak berdinak izango dira, bai industri, bai etxebizitza, bai landa eremuetan.

Jarduera ekonomikoan zerga mantentzen da. Era berean, gune publikoak okupatzeagatik ezartzen den tasa, kafetegietako terrazak esate baterako, mantenduko da, baita jardura ekonomikoekin zer ikusia duten ekin-



Gune publikoak okupatzeagatik tasa mantenduko da, baita gune publikoetan jardura ekonomikoak egitearena ere.

tzek ere. Helburua herriko komertzio sustatzea da. Ura eta estolderiako tasak ere ez dira aldatuko.

Bestalde, eskualdatze zerga, lizentzia urbanistikoak eta eraikuntza zergak %1,7ko igoera izango dute.

Zaborraren zer ikusia duten zerbitzuak ere igoera bera izango dute.

Udalak eskaintzen dituen beste zerbitzuengatik tasa edo prezioak jangela, haurreskola, kultur etxea, kiroldegia eta kirol instalakuntzak, gizarte zerbitzuak, salbuespenak izan ezik, %1,7ko igoera izango dute.

Ibilgailuek tasa ezberdinak

Honetaz gain, ibilgailuen zergaren aldaketarekin Udalak %2,67 gehiago biltzea espero duela jakin arazi zuten.

Eta nekazariak laguntzeko asmotan, nekazaritzarako erabiltzen diren ibilgailuek ez diete tipoa igoko.

Bestelako ibilgailuei dago-

kienez, potentzia txikikoek %1,7 gehiago ordaindu beharko dute eta potentzia handikoek, berriz, KPI baino gehiagoko igoera, %5, %7,5 eta %10 hurrenez hurren.

Zor ordaintzak

Bestalde, ordenantzetan zatika ordaintzeko irizpide berriak onartu ziren.

Beraz, 2012 urtean, 150 eta 400 euro arteko zorra duten herritarrek hiru hilabeteko atzerapena eskatu ahal izango dute; 400 euro eta 3.000 euro arteko zorek, aldiz, urte bete.

Era berean, atzerapen honengatik kopuruari interesik ez zaio gehituko.

Albiste txarra

PPko Vanessa Velezek batzarraren adierazi zuenez, "ordenantza hauen onspena, berri txarra da egoera txarrean dauden familientzat, haien egoera larritzen duelako".

Eta errealtatearekin zer ikusia duten proposamenak egin

beharko liratekeela azpimarratu zuen, "zergak mantendu behar dira fiskalitateak herritarrei lagundu ahal dielako".

Era berean, "lehenengo beharra lana sortzea da" ohar-tarazi zuen.

Aldaketak eta aurrekontuak

Udalbatzarraren ostean, Bildu, EAJ eta LOHPko ordezkariak zergei buruzko prentsaurrekoa eskaini zuten.

Honetan, teknikoek proposamena aurkeztu zirela azpimarratu eta hurrengo urterako kudeaketa sistema berria egitea espero dutela jakin arazi zuten, "estolderia eta uraren zergan eta zabor tasan aldaketak egin nahi ditugu".

Bestalde, aurrekontuetan lanean daudela aipatu zuten, "eguneratuak eta errealtatearekin bat datozenak".

Azkenik, hurrengo urtean, aurrekontuak egiterakoan herritarrek parte hartzea nahi dutela jakin arazi zuten, "aurten ez dugutu denborarik izan".

Jaiotza Lehiaketako oinarriak argitaratu ditu Danok Kidek

Danok Kide elkarteak XIX. jaiotzen lehiaketa antolatu du eta parte hartzeko oinarriak argitaratu ditu.

Banaka edo taldeka hartu daiteke parte lehiaketan, baina lan bakarra aurkeztuz. Jaiotzarekin batera, gutunazal batean egileen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzi-rik entregatu behar da.

Antolatzaileek azpimarratu dute, jaiotzak, gehienez, 80x60 cm-tako neurriak izan behar dituela eta, batez ere, ez dela onartuko hondo sendorik ez duen jaiotzarik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik

ere ez da hartuko.

Lanak ikusi eta irabazleak aukeratu dituen taldeak, lehiaketako sariak banatu gabe utz ditzake, kalitatezkoak ez direla uste badu.

Lau maila bereiziko dira sarietan. A mailan, 6 eta 9 urte bitarteko haurren irabazleak 60 euro eta trofeoa jasoko du eta bigarrenak, 40 euroko saria. B mailan, berriz, lehenengo sari-tuak 70 euro eta trofeoa eta bigarrenak, 50 euro. 14 urtetik 17rako tarteko gazteen C mailan, 90 euro eta trofeoa izango ditu lehenak, eta bigarrenak 60 euro. Azkenik, 18 urtetik gorako D mailako lehenengoak 120 euro eta trofeoa izango



lazio txapelketara aurkeztu ziren lanak eta irabazleak batzuz saribanaketaren ostean.

ditu, eta bigarrenak 90 euro.

Sariarik ez lortu arren, kontsolazio sari bat jasoko dute onartutako lan guztien egileek. Elkarteak, 10 euro emango ditu aurkeztu den jaiotza bakoitzeko.

Gauzak honela, jaiotzak abenduaren 20 eta 21ean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara aurkeztu behar dira, Danok Kideko egoitzan, Blas de Lezo kaleko 11-13 zenbakian. •

GAZTE EKIMENA

Kuadrillategi eta Gazteklubak Lip dub-a grabatuko dute Okendon

Kuadrillategi eta Gazteklubeko gazteek azaroaren 5ean lib dub-a grabatzeko asmoa zuten, baina ekimena egunez aldatu behar izan zuten Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailak asteburu horretarako aurreikusten zen eguraldia zela eta, larrialdi laranja ezarri zuelako eta igandean grabatuko dute.

Beraz, Pirritx eta Porrotxen Mari Kalanbre abestiarekin prestatutako koreografia igandean, azaroaren 20an egin eta grabatuko dute eguerdiko 12:00etan Okendon.

Ekimena irekia da eta nahi duenak parte har dezake. Beraz dantzatzea gustuko dutenek aukera paregabea dute igande eguerdian gaztekoek antolatutakoarekin primeran pasatzeko. •

EUSKARA

Mundiala kantu taldearen saioa igandean

Etorkeen osatutako "Mundiala" kantu taldea hilean behin elkartzen da herri ezberdinetan euskal abestiak kantatzeko eta oraingoan, Lasarte-Orian egingo dute saioa. Igandean, azaroaren 20an Landaberri BHI ikastetxean elkartuko dira eguerdiko 12:00etan eta Xumela Koruaren laguntza izango dute.

Etorkein hauek euskal abestiak ikasten ari dira abenduaren 2an ostiralean Okendon egingo den Mintzodromoan kantatzeko.

Saio irekia da, kantua gustuko duen edonor joan daiteke bertara, etorkina izan edo ez, helburua etorkin eta euskaldunak elkar ezagutu, euskaraz jardun eta kantatzea baita. •

KIROLA

Helduentzako igeriketa ikastaroa

Azaroaren 21etik urtarrilaren 4ra, erdi eta hasiera mailako helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian.

Astean hiru saio izango dira, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiralean, 20:30etatik aurrera. Izena emateko azken eguna gaur, azaroaren 18a da.

Ikastaroak 107,70 euro balio du eta kiroldegiko bazkide direnentzat 58,70 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulego-
ra hurbildu edo 943 376 182 telefonora dei dezakezue. •

Uholdean kaltetuek laguntzak eska ditzakete

Aseguru polizarik ez daukatenei ere dei egin die Udalak bulegoan kalteen berri eman dezaten

J oan den azaroaren 6an izandako uholdeen ondorioz kalteak izan dituzten herritar guztiei jarraitu behar dituzten pausuak azaltzeko bandoa argitaratu eta kalean jarri du Udalak.

Beraz, Udalak jakinarazi du du aseguru-poliza daukatenek lehenbailehen eman beharko liokete parte aseguru-etxeari, eskura daukatene eta jasandako kalteak deduzitzeko balioa izan dezakeen dokumentazio gutzia berekin eramanez.

Bandoan Udalak azaltzen duenez, kasu honetan interesgarria litzateke kaltetuak aseguruen kontorzioarekin egin beharreko tramite guztiak aseguru-etxeak egingo dituela ziurtatzea.

Bestalde, halako polizarik ez daukatenek ahal duten

dokumentazio gehiena bildu behar dute, izandako kaltea aztertzeko modua emango dutenak. Izan ere, laguntzen onuradun izateko, dokumentu hauek administrazio ezberdinek onartu beharko baitituzte.

Bulegoa

Honetz gain, Udaletxean berri kaltetuentzako bulego bat ireki dela gogorarazten da Udalaren bandoan.

Bulegoa Udaletxeko idazkaritza atalean dago, lehenengo solairuan. Udaletxera hurbildu ezin direnek 943 376 185 telefono zenbakira deitu behar dute.

Hala ere, Udaletik jakinarazten dutenez, komeni da herritar guztiek izan dituzten kalteen gutxi gorabeherako balorazio bat emateko bulego gerturatzea.



Azaroaren 6an izan ziren uholdeengatik haien lokaletan edo garajeetan kalteak izan zituzten herritarrek laguntzak eska ditzakete.

Ordezkariek azaldu dutenez, datu horiek guztiak Foru Aldundiari helaraziko zaizkio. Helburua administrazio guztiek kalteen zenbatekoa ain-

tzat hartuta, kaltetuei laguntzeko bideak ireki ditzaten da.

Era berean, Udaletxeko bulegoan interesatuei kasu bakoitzean 307/2005 errege-

dekretuak, hondamendien kasuan estatuak diru-laguntzak ematea aurreikusten duenak norainoko helmena izan lezakeen azalduko dute. •

hauteskundeak



Odon Elorza Lasarte-Orian hauteskunde kanpainan.- Odon Elorza, Donostiako alkate ohi eta PSEK Gipuzkoan Madrileko Kongresurako aurkeztu duen zerrendaburua Lasarte-Orian izan zen asteazken eguerdian feria eguna baliatuz, larroxa eta bere alderdiaren propaganda banatzen, Jesus Zaballos, alkate ohi, Iñaki Mugica eta Lourdes Acevedo zinegotzi eta beste alderdikide batzuekin batera.

Azken bozken bila

Estatuko Gobernua aukeratzeko, igandean, azaroaren 20an, egingo diren hauteskundeetarako bozkek lortzeko azken ahaleginetan dabilta alderdi desberdinak, jada, bihar hausnarketa eguna izango baita.

Asteazkenean, PSE-EEko Kongresurako zerrendaburua den Odon Elorza eta Susana Corcuera Gipuzkoa Udaltzako politikako idazkaria egon ziren Lasarte-Oria alderdi kideekin merkatuan larrosak banatzen.

Gaur, ostera, Amaiurren txanda izango da. Horretarako afari merienda ospatuko du Okendon, 19:00etatik aurrera. Taloak eta musika izango dira nagusi.

Amaiurren alde

Bestalde, Ezker Batuko kide ohiak batzuek, esaterako Ricardo Ortegak eta CCOO Jesus Uzkudunek sortu duten Erabaki taldeak botoa Amaiurren emateko eskatu du.

Ohar batean adierazten dutenez, "ez dago abstenitzarik, edo inongo aukerarik gabeko kandidaturei bozkatzerik. Ezkerreko botoa, independentista zein federalista, Amaiurren inguruan bildu behar da". Euskal Herria nazio gisa aitortzeko, erabakitzeko eskubidea onartzeko, eta krisiaren zein langileen eskubide murrizketen aurrean, bestelako gizarte eredu alternatiboa aldarrikatzen duela azpimarratzen dute. •



ANAIK

JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386



Konposta gunea martxan da Zabaletan

■ Etxean lur eta tokirik ez dutenentzat leku bat prestatu dute auzolanean ■ Udan hamar familia hasi dira hondakin organikoa ongari bihurtzen ■ Auzotarrak zabalik du auto-konpostatzeko atea

Zabaleta auzoko hamar familia hasiak dira bertan jarri duten auzo-konpostegian etxeko hondakin organikoak, belar, orbela eta landare hondarrek nahastuz konposta egiten. Auzolanean prestatu duten Konposta gunean momentuz hamar kutxa jarri dituzte; gainetik bete, bi osagai horiek ondo nahastu eta hilabete batzuek barru azpitik ongaria aterako dute baratza edo lorategietan erabiltzeko. Etxean tokirik ez duten auzotar hauek ez dira auzoan konposta egiten duten bakarrak; beste batzuek euren ortu edo etxeko lorategietan egiten dute.



Jon ALTUNA IZA

Hondakin organikoa bereizi eta horrekin konposta egitea egokia dela pentsatu baina etxean toki aproposik ez duten zabaletar batzuk elkar-tu eta denek batera egiteko lekua prestatu dute auzoan. "Sistema honetan sinesten dugu, leku bat behar genuen, zabaldu dugu eta egiten ari gara" esan digute konposta egiten ari diren Txanpi Baztarririk eta Joxan Iparragirrek.

Udalaren sail bat erabiltzeko baimena eskatu dute, eta auzo-konpostegi bat martxan jarri. Guztira, konposta egiteko hamar kutxa jarri dituzte auzoko zelai batean, eta erdiek jada badute erabiltzailea: bost jada betetzen ari dira, bakoitza bi familiek, eta beste bost daude erabiltzeko prest. Hauek ere okupatu eta auzotar gehiago euren etxeko hondakin organikoarekin konposta egiten hasi

ahala beste 15 kutxa jartzeko asmoa dute.

Auzolanean prestatu dute lekua. Ondoko etxolan konposta egiteko beharrezkoa den beste osagaia gordetzen dute, belar eta orbela alegia eta kutxen ingurua hesi batekin itxi dute.

Pixkanaka zabalduz

Duela urte bete hitzaldi-ikastaro bat jaso zuten Zabaletan bertan 20 bat auzotarrek bi adituaren ahotik. Tailer horretan hondakin organikoa ongari bihurtzeko prozesuaren nondik norakoak ezagutu eta udan jarri dute asmo hura martxan.

Oraindik ikasten eta praktikatzen ari dira, Txanpik kontatu digunez: "udan hasi ginen eta pixkanaka zabaltzen joango da. Parte hartu nahi duenak giltza izango du, materiala eta kutxa horietako bat erabiltzeko aukera eta azken finean auzolanean funtzionatzen duen taldeko kide izatekoa".



Konpostegian lurretik jaso lurrera itzultzeko prestatzen da konpostagailuetan

Auzotarrak behar dutenean hurbiltzen dira konposta gunea. Maiztasuna aldatkorra da, batzuek egunero, besteak bi egunetik behin, norberak nahi

duenean. Bestela autokonpostatze prozesua ez da zaila, garrantzitsuak diren lau arau kontutan izanez gero: leku egokian eta lurarekin kontak-

tuari kokatzea, materia heze eta lehorra bolumen berdintzuan botatzea, ondo nahastea eta hezetasuna kontrolatzea.

Bakoitzak bere erara

Joxan Iparragirrek kontatu digu konposta egiterakoan bakoitzak bere moduak dituela: "sibaritak ere badaude, batzuk sukaldatutako hondakinik ez dute erabiltzen, edo ontzeko zailagoak direnak aurrez txikitu egiten dituzte".

Kutxek azpian lurra dute, goitik hondakinak botatzen dira, tarteka nahastu edo irauli eta egin ahala azpitik konposta aterako dute hilabete batzuen ondoren "ongari bezala erabiltzeko". Horrela etengabe lekua egingo zaio berririo hondakin organikoa botatzeko. Dena den, "beteko balitz beste bat hartu eta kitto" esan digute. •



URTEURRENA
1935-2010



ILLARRETA
ITURGINZA

ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147
linterneriaillarreta@yahoo.es

TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8
Tel.: 943 361752
USURBIL
illarreta@yahoo.es

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emalea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak



- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

Egunero

Erakusketa

SOFIA AROSTEGIREN APUNTEAK erakusketa zabalik da azaroan zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN.



Ostirala, 18

Aurkezpena

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK 2012 URTEKO AURREKONTUAK aurkeztuko ditu. Bertan izango da MARTIN GARITANO Aldun Nagusia. SANDIUSTERRI ARETOAN, HERNANIN. **19:00etan**

Dantza

"EN ATTENDANT L'INATENDU" dantza garaikidea eskainiko dute, LASARTE-ORIA DANTZAN ekimenaren hirugarren saioan. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **20:00etan. Sarrera, 6 euro. Online zerbitzuan, 5 euro.**

Igandea, 20

Meza

SANTA ZEZILIA, musikoen zaindairen eguna ospatzeko

Hard Rock gau indartsua

OVERLOUD eta MISTER MACHIN taldeen eskutik HARD ROCK GAUA egongo da Abend-en. Donostiako OVERLOUD taldeak urriaren argitaratu zuten *Past has gone...today is done* estreineko diskako doinuak eskainiko ditu; MISTER MACHIN talde burgalesak, aldiz, *The World is a stage* hirugarren diskako abestiak ekarriko ditu Abend-era.

**OSTIRALA 18
00:00ETAN
ABEND KAFE ANTZOKIAN**

asmoz, ALBOKA ABESBATZAK meza nagusia girotuko du eliz abesti eta doinu ezagunekin. ARANTZAZUKO AMAREN PARROKIAN, **12:30ean**

Astelehena, 21

Kontzertua

SANTA ZEZILIA ospatzeko Lasarte-Oriako Udal Musika Esko-

lak Irungo TXORIMALOAK SOINU TALDEAREN kontzertua antolatuko du. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **19:00etan**

Asteazkena, 23

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUA ipuin kontalaria 5, 6 eta 7 urteko gaztetxoek zuzendutako IPUINAREN ORDUA eskainiko du. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan, EUSKARAZ**

Ikastaroa

NOBLE Y FIEL AMIGO ELKARTEAK txakur jabeei zuzenduriko hezkuntza proiektuan JARRERA ALDAKETAKO SAIOA PRAKTIKOA egingo du. ATSOBAKARREKO PARKEAN, **19:00etan. Izena ematea, 8 euro.**

Diaporama

Aitor Atxegak MEXIKORA egin zuen bidaia azalduko du, Ttakunek antolatutako diaporama zikloan. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **21:30ean, EUSKARAZ**

Osteguna, 24

Argia eguna

SANTI BROUARD. DUINTASUNA OMEN dokumentala ikusgai, hilabeteroko ARGIA EGUNEAN. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **21:30ean, EUSKARAZ**

Oharrak

EHNarekin bozkatu

Bai Euskal Herriari taldeak deialdia luzatu nahi die herritarrei azaroaren 20an, hauteskundeetan Euskal Herriko Naziotasun Agiriarekin (EHNA) bozkatu dezaten.

Padel ikastaroak

LOKEko padel atala hilabete honen amaieran lanean hasiko da eta haur, zein helduentzako ikastaroak eskainiko ditu asteazken zehar.

Banakako, zein taldeko saioak egingo dituzte ikasleek mailaren arabera. Haurren kasuan 7 urtetatik aurrerakoek izena eman behar dute.

Padelean lehengo pausua eman edo teknika garatu nahi duen herritar orok, orain dauka aukera. Egin beharreko gauza bakarra Eli Lorenzorekin harremanetan jartzea da, 687 632 737 zenbakian.

Baztango bailarara irteera

Biyak Bat erretiratu elkarteak azaroaren 25ean Baztango bailarara antolatu duen irteerako bigarren autobusa jarri du.

Bertan San Salvadorreko monastegia eta errota zaharra bisitatuko dituzte. Hamaiketakoa eta bazkaria Elizondoko Baztan Hotelean izango dira.

Irteeraren prezioa 34 eurotako da. Izena ematea Biyak bateko egoitzako bulegoan egingo da, 10:30etatik 12:30era eta plazak amaitu arte egongo da irekia.

Udako Txokoetako argazkiak

Udako Txokoetako argazkiak dituzten CDak prest daude dagoeneko. Txokoetan ibili ziren haur guztiek horietako CD bat eskuratzeko aukera dute. Jasotzeko Ola kalea 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik pasa behar da 17:00etatik 20:00etara azaroaren 25a arte.

Euskal Dantza taldea

Landaberri BHN entsaiatzen duen Euskal Dantza taldea, Felix Telleriak zuzendutakoa, lanean hasiko da. Entseguak astearte eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:00etara.

Alboka Txiki entseguak

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasi ditu. 7 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoek irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entseguak Zumaburuko eliza azpiko lokalean egingen da, astelehenean 19:00etatik 20:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia



Astelehenean ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

Eskutitza

Gdeim Izik kanpamendua gogoan

Urriaren 10a egun beltza izan da eta izango da beti Sahara herria maite dugunontzat. Marokoar armadak Gdeim Izik kanpamenduen kontrako erasoa egin zuenetik urte bete pasa da. Eguziak latz hori eta jarraian etorriko zirenetan, gure anai arrebeak pairatutako sufrimendua, beldurra eta frustrazioa ezin dugu ahaztu. Guk, gure herriatik amorrut eta beldurrez, sufrimenduz eta frustrazioz bizi izan guenen. Ezerez egin ahal ezin duenaren inpotentziaren seinale. Eta bai, urtebete igaro da eta zoritxarrez ez da ezertxo ere aldatu. Sahara herriaren heriotza, sufrimendua, mina eta frustrazioarengatik malloak isurtzen jarraitzen dugu.

Pasa den larunbatean,

Madriken, estatu mailako manifestazioa ospatu zen, lagun zaharrak ikusi, agurte eta aldarrikapenerako egun handia izan zen (nahiz eta hainbat politikariri egun hau haien hauteskunde kanpainerako abaguneaz baliatuko diren). Zin egiten dizuet aurkitu zirenetan, gure anai arrebeak pairatutako sufrimendua, beldurra eta frustrazioa ezin dugu ahaztu. Guk, gure herriatik amorrut eta beldurrez, sufrimenduz eta frustrazioz bizi izan guenen. Ezerez egin ahal ezin duenaren inpotentziaren seinale. Eta bai, urtebete igaro da eta zoritxarrez ez da ezertxo ere aldatu. Sahara herriaren heriotza, sufrimendua, mina eta frustrazioarengatik malloak isurtzen jarraitzen dugu.

Yal-lah Gazte Ekimen-eko kideok ez dugu Nayem (Marokiar poliziak eraildako gaztea) ahaztuko, ezta bere familia ere, hemendik, gure maitasun eta besarkadarik beroena. Ez dugu ahaztuko

ere kanpamendua eraso zutenan torturak, irainak eta bortxaketak jasan behar izan zituzten pertsonak. Gogoan ditugu ere, desagertutakoak, kartzelan komunikazio gabe sofritzen daudenak (oraindik 20 gazte bertan dihardute). Elkartasun eta informazio eskubidea bermatu nahi zenutenak, Sahara herriarekin bat egitera joan zinetenak, eta zuen lana egitea debekatu zizueten horiek, gure oroimenean zaudete. Beti zuen eskutik joan ginen eta beti joango gara.

Iazko Urriaren, Mendebaldeko Sahararen izenaren oihartzuna bazter askotan entzun zen, baino orain, axolagabekeriarekin itzala egin nahi diguzue, ikusezina garelakoan zaudete, existituko ez bagina bezala. Ba oker zaudete! Hementxe gaude, iskanbila egiten, gure ahotsak

altzatzen, itsu diren horiek ikusle bihurtzen eta ahots batzuk mututzen. Estatu Espainolari Giza Eskubideen aldeko sariak banatzeari utz diezaiotela esaten diogu, aurretik aipatutako eskubide horiek bortxatu dituzten herriei armak saltzen jarraitzen baldin badizkiozue. Gutako batzuk Madridera hurbildu ginen, beste batzuk ordea, Euskal Herriatik gure berotasuna bidali genizuen, betidanik egin dugun bezala. Elkarrekin gure ahotsak altxatu genituen, Espainiako gobernuari eta Nazioarteko komunitateari zuena den gauza bakarra exijituko diegu: ASKATASUNA.

GORA SAHARA ASKATUTA! SAHARA HURRA!

Birginia Pozo
Yal-lah Gazte Ekimena

Ordu beteko lanuztea Michelinen

■ LAB, CCOO, ELA eta UGT sindikatuek deituta atean elkartu ziren langileak ■ Erantzun ona izan zuen Lasarte-Orian hitzarmen egoki baten aldeko protestak ■ Azaroan asteazkenero bilduko dira

"Hitzarmen justu eta arrazoizko baten alde" leloarekin, Michelingo langileak enpresaren sarrerako atara irten ziren asteazkenean arratsaldeko 14:00 eta 15:00ak artean Langile Batzordeak deituta. Ordu beteko lanuzteak erantzun zabala izan du, LAB, CCOO, ELA eta UGT, lau sindikatuek egin baitute, azaroan zehar, asteazkenero protesta ekintza honetan parte hartzeko deia. Sindikatuen ustez "lotsagarria" da enpresaren zuzendaritzak egin duen eskaintza, batez ere azken urteotan izan dituzten irabaziak kontutan izanik (192 milioi euro 2010ean).

Gasteiz eta Lasarte-Orian Michelin multinazionalak dituen enpresetako langileek ordu beteko lanuzteak egingo dituzte asteazkenero, azaroaren 16, 23 eta 30ean hitzarmen txukun baten alde.

Asteazken arratsaldean, 14:00-15:00ak artean Lasarte-Oriako lantegi kanpokaldean elkartu ziren hainbat langile "hitzarmen justu eta arrazoiz-

ko baten alde" pankartarekin bat eginez.

LAB sindikatuko ordezkarien ustez "multinazional frantsesaren zuzendaritzatik egin den lan hitzarmen eskaintza lotsagarria da. Oraindik eta gehiago kontuan hartzen badugu Michelinek duen estatuko filialak azken urteetan lortu dituen irabaziak (192 milioi euro 2010. urtean eta 2011. an emaitzak hobetzeko bidean)".



Hitzarmen justua eskatzen ari dira Michelinek Gasteiz eta Lasarte-Orian dituen enpresetako langileak.

Langileen ordezkariak aho batez baztertu du enpresaren zuzendaritzak egindako azken eskaintza hori eta zera eskatzen dute langileek: Soldata izoztea 2011an eta 2012an, %1,5eko igoera 2013an eta 2014an, eta lanal-

dia dagoenean uztea. Epe luzerako hitzarmena lortu nahi dute sindikatuek, arlo sozialean hobekuntza txikiren batzuekin batera.

LABeko ordezkariak adierazi dutenez, mobilizazioak handiagoak izango dira ordu

beteko lehenengo lanuzte hauek ez baldin badute negoziaketa blokeo egoeratik ateratzeko balio, hau da, enpresako zuzendaritzaren aldetik erantzun bat eta jarra aldaketa eskatzen ari dira protestaldien bidez. •

BOZKATU

amaiur

**GAUR
OSTIRALA**

18

**OKENDON
7-etan**

**KANPAINA
AMAIERAKO**

JAIALDIA

ERAIKI ZUBIAK